



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo



KANDELERIO

SANTA AGEDA

IHAUTERIAK

SAN JUAN

GURE OHITURAK

AURKEZPENA

Kultura bakoitzak eta herri bakoitzak egoera eta une desberdinen aurrean bere konportamenduak ditu. Hauetariko une batzuk urteak dakartzan ospakizunak dira, adibidez: Gabonak, Santa Ageda, Ihauteriak, San Juanak, etab. Kasu bakoitzean baditugu zenbait ohitura, esaunda, abesti edo esaera.

Ohitura horien ezaguera ahalik eta zabalena izan dadin, eskuan daukazuen bezalako argitalpen txiki bat noizbehinka egitea bururatu zitzaigun, geure herri eta inguru hurbileko ohiturekin, hemen aurkezten dizueguna bigarrena delarik.


Lantxo honen helburua ez litzateke ikerketa etnografiko bat egitea izango, Gernikako eskolei materiale lagungarri bat eskeintzea baizik, eta, eskola umeen bitartez, Gernikako etxeetaraino iristea.

*Gernika-Lumo Udaleko Hezkuntza eta Kultura Arloa
Gernika, 1988ko Udaberria*

Koordinatzailea:	Joseba Aizpurua
Lanen eta abestien bilduma:	Itziar Zallo Javier Urrutia
Irudiak:	Edu Gordo
Kolaboratzailea:	Amagoia Lopez de Larruzea
Baliabideak:	Busturialdeko ABT
Babeslea:	Gernika-Lumoko Udala

I.- KANDELERIO

(Otsailak 2)



Jai honen berezitasuna kandelak bedeinkatzea da.

Egun honetan bedeinkatutako kandela hauek ekaitza zetorren bakoitzean piztu egiten ziren (dira) etxeetan, ekaitzen kontrako podere bereziak zituztela sinisten baitzen.

Egun honetan Eleizak Amabirjinaren Garbikundea ospatzen du.


Zenbait tokitan egun hau izaten zen Ihauterien hasiera, bertatik aurrera marro jantziak eta eskabideak egitea onartuak zirelarik.

Kandelerio egunean ohitura zen ume koskorak taldeka irtetzea, kandela piztuak eskuan zirela, «kandelerio, lero» abestia kantatzen.

Ohitura hau gure herrian galdutzat eman zitekeenean, berriro pizten ari da eta azken urteotan Kandalaria iluntzean berriz entzun daiteke gure kaleetan doinu zahar hau, eta berriz ikus dezakegu kandelan sua haurren aurpegiak argitzen.

KANDELERIO

Allegro moderato



Kandelerio leri-o, atxari ura dari-o,
sagarra-ri madari, eutsi, Peru da-ma-ri.

Agur ba Dontzelliakandelerio, lero,
atxari ura dario,
sagarrari madari,
eutsi Peru adarrari.

Euria dakar menditik
Qndarroaren gainetik,
Eztaukat zapatarik
banoa Lekeitiotik.

Kandelerioz eguzki,
negua dago aurreti;
kandelerioz edurra,
joan da neguaren bildurra.

Gernikako ume erronda-abesti herrikoia, Elai-Alai dantza taldeak zabalduakoa.

**Kandelerioz eguzki, negua dago aurreti;
Kandelerioz edurra, joan da neguaren bildurra.**

**Kandelerioz euria, lastera da uda berria;
Kandelerioz aterri, negua dator atzeri.**

**Kandelaria bero, negua dauka gero;
Kandelaria otz, negua joan da motz.**

**Kandelario, lario, atxari ura dario;
errotari uruna, auxe da guk beoguna.**

**Kandelerio, lario, atxari ura dario;
makatzari madari, eutsi Peru ankeari.**

Andreak andrandi, kandelerioetan dira agiri.

II.- SANTA AGEDA

(Otsailak 5)

Sizilian jaio zan III. mendean, Erromako Inperioaren garaian. Historiak dioenez, Agate neskatzaren edertasunaz liluraturik, Quinciano Siziliako gobernadore zenak bere emaztetzat hartu nahi omen zuen. Hark ezetza eman zionean, gartzelan sartu zuen eta hantxe galdu omen zuen bere bizia, oraindik gaztea zelarik, bere kristau fedeari uko ez egiteagatik.

Euskal Herrian ospe handikoa dugu Agate deuna, bere irudia esaunda eta abesti herrikoi askori lotuta dagoelarik.

Suteen kontrako babesle eta, bereziki, emakumeen bularretako gaitzen sendagile, ez dira gutxi bere izenean eraikita dauden baselizak eta ugari dira bere irudiak hainbat eleizatan.

Agate deunaren eguna Otsailaren bostean ospatzen da. Bezpera arratsalde herri gehienetan ume, gazte edo nagusi taldeak kalera ateratzen dira eta aterik ate edo kalez kale ibiltzen dira abestuz.

Honetan beste ospakizun batzuekin zerikusia izan arren, diferentziak ere badira: beste ospakizunetan, (Olentzero, Gabon Zahar, Urte Barri, Erregeak,...) abestiak aldaketarik gabe aspalditik mantendu diren bitartean, Agate deunaren bezperan taldearen gidari izaten den bertsolariak berak asmatzen zituen askotan. Gaur egun, egia esan, inon ez dela inprobisatzen uste dugu, aurretik ikasitako bertsoak abestu baizik. Beraz, ohitura honek bizirik irauten badu ere, ez du lehengo «bizitasuna».

Ikus dezagun nola ospatzen zen jai hau Gernikan eta Bizkaiko beste herri batzutan, orain ehun urteko aldizkari batetako idazle baten esanean⁽¹⁾.

Eguna hurbiltzen zenerako, plaza mutil taldeek heuren prestakizunak hasten zituzten. Lehenengo lana bertsolari bat aurkitzea taldea zuzentzeko. Eskola mutikoen artean ere antolatzen ziren talderen batzuk, baina buruz ikasitako bertsoak kantatzeko bakarrik, noski. Nonbait benetako abesbatzak ere biltzen ziren, musika tresnen laguntzaz eta guzti, baina hauek ere ez zuten «gatz» hura.

Agate deunaren bezpera arratsaldez erronda hasten zen. Gidariak kanpaitxo bat eramaten zuen ate bakoitzaren aurrean taldekoek bildu eta kantatzen hasteko adi egon zitezten. Eta gidaria kantatzen hasten zen: lehenengo bera bakarrik eta gero taldea, batak sarrera eman eta besteek jarraitu, makila sendoezin ritmoa markatuz.

Haserako bertsoak (bi estrofa) derrigorrezkoak ziren talde guztientzat, taldearen errespetozko aurkezpena eginez eta etxeko baimena eskatuz. Gero santa martiriaren bititza eta heriotzaren gertakizunak kantatzen ziren; baina geldiune bakoitzean, gehiegi luza ez zedin, hauetariko estrofa pare bat botatzen zen, gero beste gai batzuekin jarraitzeko, zortzi-hamar geldiunetan historia osatuz eta berriro hasiz.


Baina beste bertso eta doinu batzuekin jarraitu aurretik, ez genuke ahaztu nahi aipatutako aldizkarian Isidoro Ruiz de Arbulok kontatzen digun Gernikako ohitura bitxi bat.

(1) Isidoro Ruiz de Arbulok, «La Fiesta de Santa Agueda» en Euskal-Erria. Revista Vascongada, t. VXIII, 1.º semestre de 1888. San Sebastián.

«Gernika inguruko herrietan, eta agian beste batzutan ere, San Ageda eguneko iluntzean, Kandelaria egunean elizan bedeinkatutako kandelak pizten dira baserrietako solo eta landetan eta, gaua paketsu balego, ikusgarria izaten da zenbat argi lurrean eta zenbat izar ditzira zeru altuan, uren ispiluan nola gehitzen diren eta urrutian galtzen».

«Agian badu ohitura honek beste eskualde batzutan kanpai-hotsarekin zerikusiren bat eta baita, lehen esan bezala, euskaldunek Santa honi suteengandiko salbatzaile bezala dioten debozioarekin ere».

San Blas ta Santa Agedako feriak, mutil-neskatxen ezupideak.



SANTA AGEDAREN BERTSOAK

Be-dein-Ka-tu-i-ban de-di-Ua E-he-ho-ne-ta-Ko-jen-di-
a, po-bre ta hu-mil da-bi-lle-nen-tzat ba-du-te bo-ron-da-ti-
a. San-ta mar-ti-ri mai-ti-a da-go e-rru-Kiz be-li-
a. Jaun te-ru-ko-ak e-mon dai-o-la o sa-su-na la bo-Ki-a

-1-

Bedeinkatua izan dedilla
 etxe onetako jendia,
 pobre ta umil dabillenen-tzat
 badute borondatia.

Santua martiri maitia
 dago errukiz betia,
 Jaun zerukoak emon daiuela
 osasuna ta bakia.

-2-

Libertadia eskatzen diot
 etxeko printzipalari,
 Santa Agedaren alabantzak
 kantadutera nua ni;

Grazia pizkat ipini
 santa bedeinkatu oni.
 Kristandadian onen izena
 beti bedeinkatu bedi.

Nola abestu:

Estrofa guztiak ipintzen ditugun arren, ez da zertan dena abestu; aukeratu daitezke, adibidez, lehenengo laurak eta gero azkenengoa. Kantatzerakoan, zenbaki bakoitzean lehen zatia (4 bertso) solistak egiten ditu, eta beste zatia (beste 4 bertso) taldeak. Hiru abotsetara abestu nahi edo ahal izanez gero, talde osoari dagokion partea armonizatua eskeintzen dizuegu.

-3-

Nor esango du zer pasa zuan
 munduban Santa Agedak,
 lendabiziko azotatu ta
 kendu zizkaten bularrak;

Gorrotuaren indarrak
 jentillen biotz gogorrak.
 Instapatian estali zion
 gorputz guztia adolak.

-4-

Santa au preso sartu zanian
 zan milagro bat andiya,
 zeruetatik jatsi zitayon
 Jaungoikoaren argiya:

Milagro ikaragarriya
 santa onen alegriya;
 San Pedrok berak kuratu zion
 santiari gorputz guztia.

-5-

Onen erida gorputzekoa
 zenbateraño ote zan,
 Santa Ageda martiri onen
 itz bi nai nituzke esan;

Jentillen atzamarretan
 batere bildurtzen etzan,
 bada emendik konsideratu
 santaren biotza zer zan.

-6-

Berriz Enperadoreak diyo
 eramateko argana,
 dontzella gazte onek biotza
 len bezin firme darama,

Jaun zerukoak emana
 orain berekin daukana,
 amore aundiya zuen
 gure Jaungoikoa gana.

-7-

Martiri oni esaten dio,
 zeña zegoan isilik,
 adora itzazu gure jaungoikoak
 baldin nahi badezu bizirik;

itz oriyeak aditurik
 santa baidiyo bakarrik:
 nik adoratzen dedaño baño
 ez dago inon besterik.

-8-

Zer balorea eraman zuban
 etzai gaistuen aurrera,
 umildadeko begi ederrak
 isuririkan lurrera:

Enperadore kruel au beti
 gogor zeguan berera,
 arrastaka ta desonratuaz
 atera bedi kalera.

-9-

Orduban ere erantzun ziyon
 Jaungoikuari graziyak,
 baña borrhero jentil gogorrak
 zeuden gorrotos josiya,

santaren fede biziyak
 Jaunaren probidentziyak
 lurrak ikara egin zuban ta
 arritu ziran guztiyak.

-10-

Paret aundi bat erori zan
 ikara onen puntuban,
 Enperadore arren lagun bi
 azpiyan galdu zituban;

ikusirikan orduban
 ayek alako moduban,
 zer milagroak gertatu ziran
 santa onekin munduban.

OHARRA: Ez dugu ortografia eta puntuazio aldaketarik egin, «ch»ren ordez «tx» idatzi baizik.

Gernikatik zabaldua zegoen bertso paper baten bersio berbera ikusi dugu, hitz bat edo besteren diferentziak.

-11-

Jentil gogorren eskuetatik
sartu zan kalabozuan,
agoniako ordu santuba
ondo ezagutu zuan;

iltzeko zeguen orduan
Jesus hil otza zeguan
orain gloria gozaten dago
aingeruekin zeruan.

-12-

Kristau deboto batzuck zuten
gorputz santa ura artu
Kataniako ziudadian
baita ere enterratu:

kristauak konsideratu
au onela zan gertatu,
karidadian ematen dana
berak oi die pagatu.

-13-

Adios orain esaten diet
santa onekin batian,
urte ontxo bat pasa dezaten
osasanaz ta bakian:

pobre umillen artian
beti erruki gaitian,
karidiak lagunduko du
zeruetako atian.

Nahi izanez gero, doinu berberarekin honako estrofa hauek erabil
daitezke:

-1-

Santa Ageda, Ageda,
gure martiri maitea,
gure herriari emon eiozuz
zoriona ta pakea.

Santa Ageda, Ageda,
gure martiri maitea,
gure herriari emon eiozuz
zoriona ta pakea.

-2-

Len bait len betor gugana
guztietako ondasuna,
izan dadigun guztiok beti
buru eta esku lana.

Santa Ageda, Ageda,
.../...

-4-

Aurtengo hau izan bedi
uzta eta bake urte,
zuentzat eta euskaldunontzat
orain legez betirarte.

Santa Ageda, Ageda,
.../...

-3-


Orrintzi eta goraka
izan dadigun jai hotsa,
elkarrekin bat poztu daiguzan
gure buru ta bihotza.

Santa Ageda, Ageda,
.../...

-5-

Ugazaba-etxeandreak
izan eizue urte on,
etxe honetan izan dadilla
bete betean zorion.

Santa Ageda, Ageda,
.../...



Santa Ageda bezperako erronda.

AINTZALDU...

Aintzal - du dai - gun A - ga - te Deu - na bi - har
 da, ba Deu A - ga - te E - lre - ho - ne - tan zo - ri - on
 hu - tsa be - ti - ko eu - ko al - da - be Ze - ru goi
 goi - an e - der i - za - rra e - rre - kol - di - an li - za -
 rra e - txe hon ta - ko na - gu - si
 jau - nak u - rre go - riz - ko bi za - rra

-1-

Aintzaldutza daigun Agate deuna bihar da ba deun Agate, etxe honetan zorion utsa betiko euko al dabe.

Zeru goi goian eder, izarra errekaldean lizarra, etxe honetako nagusi jaunak urregorritzko bizarra.

-2-

Gabon denori gerniketarrok bardin andra ta gizonak, barrero bere agertu gara Santa Agedaren lagunak.

Agedaren garbitasunak ta gure alkartasunak borondatian jarri daitzala Gernikako euskaldunak.

-2-

Bedeinkatua izan dadilla etxe honetako jendia, pobre ta umil dabilzanentzat badabe borondatia.

Emongo bazu laister emoizu bestela ezetz esaizu, ate ondoan otzak hiltzera amak ez gaitu bialdu.

-4-

Eta honekin amaitzen goaz gehiago ezin gara egon, borondatia orain daukanak bihar arte ez itxaron.

bakoitzal al dabena emon ta garbitasuna jagon, eskerrik asko gerniketarrok agur denori ta gabon.

KOPLAK⁽¹⁾

Na - gu - si jau - na au - rre - ra e - rre - be - rentzia
 lu - rre - ra - lo - tsa ge - ra - la e - to - ri
 ge - ra jau - na - be - ren au - rre - ra

-1-

Nagusi jauna aurrera erreberentzia lurrera lotsa generala etorri gera jauna beren aurrera.

-2-

Alkate jaunaz egondu gera atzoko arratsaldian, libertatea geredin degu ibiltzeko bakean.

-3-

Etxe honetako txiki handiak eder elizan liburu, usuak haren inguru paradisuari aingeru.

-4-

Eder Elizan altera harri labratuz pilare, Birjiña Amaren eskojituak etxe honetan dirade.

-5-

Usua dua etara nere begiak lotara, orantxe nua nagusi jauna beorren koplak etara.

-6-

Eder soruan goldia soñian kapa gorria, etxe honetako nagusi jauna ondo gizontxo noblia.

-7-

Eder zeruan izarra erreka aldean lizarra, etxe honetako nagusi jaunak urte gorritz du bizarra.

-8-

Urte gorritz du bizarra eta diamantezko esdapalda, beori bezin gizon presturik herri honetan ez alda.

(1) Koplak hauek Gernikako bertso paper batetan aurkitutakoak dira. Jakin ahal izan dugunez musika honekin abesten ziren.

Kasu honetan ere estrofa aukeratu egin daitezke, denak kantatu beharrean.

-9-

Eder intxoren kordena
halaise degu ordena,
etxeko andria koplaturtze
nagusaren urrena.

-11-

Txuri nabarra azpiko
gorri eder gañeko,
andria zure parerik ezta
plaza bat onartutze.

-12-

Eder buruan espala
nik ezin esan bezala,
zure besuan lo egin lezake
paradisuan bezela.

-13-

Arantza beltza ostra txiki
puntura saku loratsu,
orain hemen behar genduke
zaldun gazte bat koplatu.

-19-

Eder espata magiarekin
magia pantaloarekin,
etxeko andria etorri zaigu
eskuan limosniarekin.

KOPLAK⁽²⁾

Na-gu-si jau-nau-rra e-rra-be
ren-tzia lu-rra lo-tsa ge-ra be-to-ri
ge-ra jau-na be-ren au-rra

(2) Doinu hau ere Gernikakoa da eta letra berberarekin erabiltzen ohi zen.

-14-

Horra hor goian iturri
ura txorrotik erori,
etxe honetako zaldun gaztiak
hamalau urra txintzarri.

-15-

Hamalau urra txintzarekin
zazpi damaren eguzki,
haiek guziak halan izanik
gehiago dituz merezi.

-16-

Arantza beltza ostrua txiki
puntura saku loratsu,
orain hemen behar genduke
dama gazte bat koplatu.

-18-

Krabeliñaren orriarekin
larrosa maiatzekoa,
Zeuri begira hementxe nago
damatxo bihotzekoa.

BEDEINKATUA

Be-dein-ko-tu-a i-zan da-di-la e-txe-ho-ne
ta-ko jen-de-a po-bre-ta u-mil da-bil-ta-
nen-tzat ba-da be-bo-ron-da-te-a E-der ze-
ru-an i-za-rra e-rra-kaal-de-an li-za-
rra e-txe-ho-ne-ta-ko na-gu-si
jau-nak u-rra go-rriz dau bi-za-rra

Bedeinkatua izan dedilla
etxe honetako jendia,
pobre ta umil dabilzantzat
badabe borondatia.

Eder zeruan izarra,
errekaldan lizarra,
etxe hontako nagusi jaunak
urregorritz dau bizarra.

Santa Ageda bezpera dogu
Euskal herriko eguna,
etxe guziak kantuz pozteko
aukeratua doguna.

Agur orain diñotzuegu,
Santa honegaz batean,
urte eder bat pasa dagigon
osasunez ta bakean.

III.- IHAUTERIAK

(Garizuma
aurreko egunak)

Ihauteriak ez dira Euskal Herrira bakarrik hedatzen. Mundu guztiak ezagutu izan ditu eta era berean bizi. Gaur egun ere ez dira gutxi jai hauek berpizten eta gaurkotzen dituzten herriak. Hautetik bat Euskal Herria berau dugu.

Noizkoak ditugu ohitura hauek? Gizona bezain zaharrak direla esatea gehiegi bada ere, bai gutxienez artzaintza arokoak. Beraz, historiaurretik bertatik datozkigu haztarnak.

Eguzkiak markatzen ditu artzaintzat mendietara edo ibarretara mugitzeko sasoiak eta era berdinean nekazarientzat uzta eta erein garaiak.

Eguzkia jarriko du aintzinako gizonak guzti honen eragile. Eguzkia beharrezko da fruituak heltzeko. Eguzkiarengan jartzen du bizitza indarra. Bera da garai hartakoentzat bizitzaren oinarri. Nortasun berezi bat hartzen du beste izaki guzien gainetik. Hala ditugu euskeraz ere «Eguberri» (eguzki berri) eta «Ekain» (eguzki gain). Neguko eta udako solstizioez ohartuko da. Bai bata eta bestea ere jai bereziz hornituko ditu.

Baina Ihauterien datu zehatzagoak Kristautasuna hedatu ondoren datozkigu. Kristautasunak, ohitura zaharrago bateri jarraituz, agian, Garizuma ezartzen digu. Une hau, era guztietako penitentzi, sakrifizio, zigor eta barauz osatzen da.

Ni Erramuren beldur, egin dezan zizorkarekin elur.

Urtean behin Pazko.



Basatoste.

Batez ere barauz; barauak baitira Garizumako ekintzarik nabarmenenak. («Haratuzteak» = haragi uzteak). Baina hain zuzen ere Garizuma aurreko unea Ihauteriek osatzen dute. Gizonak bere gizarte konportieran eta gizabanakakoan ere oreka bat bilatu nahirik, Garizuma aurretik, Ihauteriak antolatzen ditu. Ihauteri hauek Garizuma esanahiaren kontrako ekintzez osatzen dira. Ihauteriak azken batez, Garizumaren zigorrak jasan aurretik, gizartearen eta gizabanakakoaren prestakizun psikologiko bat baino ez direla esan genezake.

Urtaroaren muga honetan gizona bere askatasunik zabalenean aurkitzen da. Badirudi txantxetan edo adar jotze garai bat dela, esan nahi duela hitz honek. Festa garai bat agian. Festa garai honen klimaxa asteartez izaten da, ondoren hauts-eguna dator eta berarekin Garizuma». ⁽¹⁾

(1) Komatxo artean ipintzen dugun zati beharbada luzetxo hau Bilboko Historia eta Arkeologia Museoko Pedagogi Bulegoak ateratako txostenetik hartzen dugu.

Garizuma goiz bazan, berandu bazan, erdia gutxienez negua zan, guztia ezpazan.

Garizuma berandu, udaberria berandu, kukua etorri, gosea etorri, kukua juun, gosea juun.

Baietz, bihar dala maietz, etzi Pazkoa, ezkontzen dala atsoa.

Pazko goiz balitz, martxoan ezpalitz.

GERNIKAKO PASEALEKUAN



Zentzu orokor honen barruan badaude, hala ere, desberdintasunak toki batzuetatik besteetara, eta baita baserri girotik herrietara ere. Gernikak multzo bietatik zerbait duela esan genezake. Ikus dezagun zeintzuk izan diren gure herrian garai honetako ohiturak.

Hasteko, Gernikan «Ihauteriak» barik «Aratoste» izenarekin ezagutzen ziren ospakizun hauek.

Quinquagesima aurreko igandez hasten ziren jaiak «Basatoste» izena hartuz. Mendira edo landetara jotzen zuten eta han janari bat atondu arraultze, lukainka eta urdaiz. Ondoren erromeria bat egiten zuten.

Eguen Zuri (Jueves Gordo). Ihauterien barnean, batez ere hurrei dagokien eguna dela esan genezake. Gehienetan eta festa giroaren barne, haurrak etxez etxe joaten dira eskaerak egitera taldeetan antolatuz.

Ondoren, bildutakoaz janari bat antolatzen dute.

Aratoste domeka. Fueros enparantzan kukaina jolasa antolatzen zuten. Aratoste astelehenez eta asteartez ere antolatzen zen.

Asteartez, goizeko hamaikak inguruan, marroz jantzitako dantzariak aureskua egiten zuten. Ondoren oilar jokoa antolatzen zen.

Astearte arratsaldean musika taldeak eta jendea kalez kale ibiltzen ziren Ohiturari jarraituz, egun horretan tostadak jaten zituzten.⁽²⁾

KARNABALAK (Gernika)

E-men naiz ba Ka-ta-liñ On-do e-rru-Ka-ri, on-
do e-rru-Ka-ri: za-be-La har-mar e-ta bi-o-tza det la-
rri: bal-din e-dan ez-ke-ro ar-du-a txit gar-bi, gi-
xo-nik Kaz-Ka-vre-nak ba-li-o di-tuz bi. gi-
xo-nik Kaz-Ka-me-nak ba-li-o di-tuz
bi.

[Letra: Emilio Zelaia
Musika: T. Makazaga 1934]

Sei baso atara ta
sei tragotan uztu,
sei tragotan uztu,
beste sei edateko
iñor biar ez du.
Edan korriente baña
pagatzia astu,
olan taberneria
ezin aberastu,
olan taberneria
ezin aberastu.

Pagatzen ez badezu
zor dokana neri,
zor dakana neri,
parte emango diot
zeladoriari.
Ez emon parterikan
zeladoriari,
astion pagako tsut
pitxer bat edo bi,
astion pagako tsut
pitxer bat edo bi.



Gernikako Ibañeriak. «Oilar jokoa».

Gaur egun ez dira ezagutzen (edo ez dira kantatzen) Gernika bertoko beste abestirik Ibañerietan. Baina eskoletan batez ere zabaltzen ari dira zenbait zenbait abesti egun hauek girotzeko eta, nahiz eta jatorriz beste toki batzuetakoak izan, txosten honetan bildu nahi izan ditugu batzuk.

ARTILLERO

Ar-ti-ll-e-ro, da-le fue-go. ez-koñ-tzen zai-gu-la
 Pas-te-le-ro. E-ta zein-e-kin, e-ta no-re-kin,
 Mo-ko-zi-ki-ña-ven a-la-ba-kin. La la la la la
 la la la la la la la la la la la la.

Artillero dale fuego
 ezkontzen zaigula Pastelero.
 Eta norekin, eta zeinekin?
 Mokoziñaren alabekin.
 La la la la la la ...

IHAUTERIAK AMAITU DIRA

I - hau - te - ri - ak a - mai - tu di - ra,
goa - zen, goa - zen da - nok U - dal - e - tre - ra

Ihauteriak manitu dira,
goazen, goazen denok Udaletxera. (bis)

KOITTADUAK

Koi - tta - du - ak, Koi - tta - du - ak, a -
mai - tu di - ra aur - ten - go I - hau - te - ri - ak.

Koittaduak, koittaduak,
amaitu dira aurtengo Ihauteriak.

AXURI BELTZA

A - xu - ri bel - tza o - na dut bai - na zu - ri - a be - rriz
ho - be - a, dan - tza - n i - ka - si nahi du - en ho - rrek
ne - re oi - ne - ta - ra be - gi - ra

Axuri beltza ona dut baina,
zuria berriz hobea.
Dantzan ikasi nahi duen horrek
nere oinetara begira.

LA GON GON

La - gon - gon Ma - ri - a gon gon txi - bi - ri - bi - ri gon - gon. La
gon - gon Ma - ri - a - gon - gon txi - bi - ri - bi - ri - gon - gon. Bi -
to - ri - a Bi - to - ri - a txi - bi - ri - bi - ri gon - gon gon - gon. Bi
to - ri - a. Bi - to - ri - a txi - bi - ri - bi - ri gon gon.

La gon gon maria gon gon
txi-bi-ri-bi-ri gon gon (bis)
Bitoria bitoria
txi-bi-ri-bi-ri gon gon.

DANTZA

* Tra - la - la - la - la - la - la ...

IV.- SAN JUAN-DONIBANE

Jai honen jatorria uda-solstizioan kokatu behar dugu, eta hortik datorkio eguzkiarekin edota naturarekin daukan lotura.

Hasiera batetan jai paganoa zena, kristautasunaren eraginez, San Juan-Donibane omenez ospatzen da.

Beraz, aintzinako jaia da San Juan bezperan egiten dena, eta honen inguruan kontu eta ohitura ugari sortu da mendeetan zehar. Adibidez, etxeko ateetan ipintzen dira landare eta erramu mota desberdinak: lizarra, sahatsa, ira, ereinotza, ..., sorginak eta bestelako kalte eta gaisoak urruntzeko.

Ezagunena eta gure artean ondoen mantentzen den ohitura San Juan Suak egitearena da. Gaur egun gure eskualdeko baserri auzo guztietan egiten dira San Juan Suak. Hilabete aurretik hasten dira umeak kartoia, egurrak eta beste errekinak batzen eta pilatzen, San Juan bezpera iluntzean dena prest izateko.

Behin sua pizten denean, benetako jai giro bat sortzen da. Su garrek goraka egiten duten bitartean, irrintziak, kantuak eta txistu doinuak gaua betatzen dute. Gazte eta ausartenak su gainetik saltatzen hasten dira, rito zahar bati jarraituko baliote bezala. Inguruan bildu den jendea -zer indar ote du San Juan Suak- sorginduta dirudi suari begira...



San Juan sua.

GAUR DALA

(Ekainak 24)

Gaur dala bihar dala Do-ni-a-ne
 e-tzi San Juan bihar-a-mo-ne
 gu-re ka-li - an sor-gi-nik-ez
 ba-da-goz be-re e-rre-bei-tez
 gu-re ka-li - an sor-gi-nik ez
 ba-da-goz be-re e - rre bei-tez e-ta
 e - rre bei-tez

Gaur dala, bihar dala
 Doniane, etzi San Juan
 biharamone.
 Gaur dala, bihar dala
 Doniane, etzi San Juan
 biharamone.

Gure kalia sorginik ez;
 ba dagoz bere, erre beitez
 Gure kalia sorginik ez,
 sorginik ez;
 ba dagoz bere, erre beitez
 eta erre beitez.

(San Juan suaren gainetik
 salto egiterakoan abesten
 dute umeek).

SAN JUAN

San Juan ar-te por-ta-le ta-nan za-pa-tu a-
 rra-tsal di-an ha-ma-lau a-tso tron-peta jo-ten
 mo-troi-lu ba-ten ga-ni-an
 U-rra U-rra U-rra San Ju-a-ne-ra dan-tza e-gingo do-gu ipar
 hai-ze-tan u u u San-Jua-ne-ra go-az gu

San Juan anteportaletan
 zapatu arratsaldian
 «hamalau atso tronpeta jotan
 motroilu boten gainian»

«Urra, urra, urra San Juanera
 dantza egingo dogu
 Ipar haizetan
 U, u, u, u, San Juanera goaz gu».

Atsoak ziren txikiak edo
 motroilu zen haundia
 «ez zan posible kabitutia
 motroilu baten gainean»

«Urra, urra, urra.....»

SAN JUAN

San Juan dabil so-lo-e-tan so-lo quz-tiak be reinke-tan
 sorgi-nak erre la-pur-rak erre ar-toa ta ga-riak Kai-xangor-de
 Nikiku-si ni tu-en San Juan ga-bi-an
 Txomin-e-ta Bar-to-lo ta-ber-na Ko-ati an
 hormia za-la-ko-an batak bes-tia-ri
 txi-za-ei-ten eutson zar-zar ja-ja-ta-ja praketan al-ka-ri

San Juan dabil soloetan
 solo guztiak bereinketan.
 Sorginak, erre, lapurrak erre.
 artoa ta gariak
 kaixan gorde.

Orain amumak konta daiala
 kontutxu bat!:

Nik ikusi nituen
 San Juan gabian
 Txomin eta Bartolo
 tabernako atian
 hormia zalakoan
 batak bestiari
 txiza eiten eutson zar-zar
 ja, ja, ja, ja,
 praketan alkarri.

San Juan, artoa ta ogia kanpoan.

San Juan, zelan etori alan yoan.

San Juan, yan edanak yuan.

San Juan euli gabe, urte ogi gabe.

San Juanetako euriak kenten deo ogi eta ezdei
 emoiten ardau.

San Juanetako euriak kentzen du ogia eta eztu
 ematen ardoa.

BIBLIOGRAFIA

- Cancionero Popular Vasco - Resurrección María de Azkue.
 Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca I, II.
 Editorial: La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao 1968.
- Euskaleñiaren YAKINTZA - Resurrección María de Azkue.
 Tomo III eta IV.
 Espasa Calpe, S.A. Madrid 1969.
- Enciclopedia General del País Vasco - Auñamendi.
 Editorial Auñamendi - Estornes Lasa Hnos.
 San Sebastián 1976.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	3
I. Kandelerio (Otsailak 2)	4
• Kandelerio	5
II.- Santa Ageda (Otsailak 5)	7
• Santa Agedaren bertsoak	10
• Aintzaldu...	14
• Koplak (1)	15
• Koplak (2)	16
• Bedeinkatua	17
III.- Ihauteriak (Garizuma aurreko egunak)	18
• Karnabalak (Gernika)	23
• Artillero	25
• Ihauteriak amaitu dira	26
• Koittaduak	26
• Axuri beltza	26
• La gon gon	27
• Dantza	27
IV.- San Juan-Donibane (Ekainak 24)	28
• Gaur dala	30
• San Juan	31
• San Juan	32
Bibliografia	33